

Domingo de Aramburu Gorostegui

- Ordizian jaio zen 1859/08/05ean.
- Sakristaua, organista eta Udaleko idazkaria, 1880tik 1892 arte.
- Udalak ordaintzen zituen organista, sakristaua eta serora.
- 1887/11/22an ezkondu zen Orendainen.

Juan de Azarola Chinchurreta

- Domingoren ondoren, honek hartu zuen organista, sakristau eta idazkari postua, baina denbora gutxi iraun zuen.
- Gabirian jaio zen 1861/01/27an.
- Zumaian edo Azkoitian hil zen.
- Honen semea zen Pepe Azarola pianista famatua.

Miguel Arrese

- Apaiz lagunkidea eta organista izan zen.
- Udaleko aktetan azaltzen denez, Ataun S. Gregorion zegoen apaiz hau ekartzea eskatu zuten udaletxetik, harmoniuma jotzen zekielako eta ahots ona zuelako.

Carlos Joaquin Aranguren Galdona

- Abaltzisketan jaioa 1874/01/17an.
- Abaltzisketan hila 1928/11/28an (54 urte).
- Agerreko Joakina Maiz Dorronsororekin (1873/10/08, 1942/07/26) ezkondua.
- Abaltzisketako eta Orendaingo Udaletako idazkaria eta organista.
- Bost seme-alaba izan zituen: Zakarias, musika ikasi gabe, belarriz, jotzen zuen; Rufino, praktikantea eta gero kartujoa; Luis, postaria; Zoila, eta Luziano (organista hori ere).

Jesus Azurza Gorostiaga

- Alegian jaio zen 1904/11/28an.
- Iruñean hil zen 1992/11/21ean.
- Alegiako Bernardino Azurza organistaren eta Antonia Gorostiagaren semea.
- Aitarekin hasi zen organoa ikasten, eta Orendaingo organista ere izan zen.
- 1939an Iruñera joan ziren bizitzera eta Dominikoen elizako organista izan zen 25 urtez.
- 1930 edo 1931an ezkondu zen Alegian, baina alargun geratu zen, eta Carmen Balda Ayestaranekin (Alegiakoa) ezkondu zen 1943/08/27an.
- Nafarroako Gobernuak organistei egin zien omenaldian, 1988/10/16an, omendu egin zuten Jesus ere.

D. Jose Francisco Elorza Insausti (Orendaingo apaiza)

- Lazkaon jaio zen 1902/9/22an.
- Donostian hil zen 1977/6/24an.
- S. Klaran (Tolosa) azken 3 urtetan egona.
- Musikaria zen, Elizako harmoniuma jotzen zuen.
- Sekretarioa zen eta juzgaduko lanak ere egiten zituen, beste gauza askoren artean.
 - D. Martin Iturbek dioenez, Alegiako medikuak horrela esan omen zion: “Usted es secretario, juez, alguacil... y a veces cura”.
 - Orendainen horrela diote: errogatibak egin behar omen zituzten eta baserritar bat gerturatu omen zitzaion honela esanez: “bueno, errogatibekin euria egingo ahal digu oraingoan”; eta D. Josek: “guk egindako errogatibekin baino lau haizeen borrokarekin lehenago hasiko du”.
- Eskolapioen komentuan ere klaseak emana, fisika edo musika.
- Irratia muntatu zuen, handik eta hemendik kableak jarri eta... Orendain, Alegia eta Abaltzisketarentzat irrati bat sortzea (emisorea) proposatzen zuen, 3.000 pta. inguru kostatuko omen zen; baina irratiarik gabe geratu ziren, nonbait ez zen denen gustukoa.

Jose Maria Ormazabal Saralegui (Iñaki Ormazabalek emandako informazioa)

- Anoetan jaioa 1904/03/14an.
- Lazkaon hil zen 1991/01/05ean.
- Zizurkilgo Gloria Labayen Gurruchagarekin (1910/9/19) ezkondu zen.
- Hiru seme-alaba izan zituzten: Pello Mari, Iñaki eta Mari Arantxa.
- Arantzazun, frantziskotarretan, egon zen ikasten eta musika ere han ikasi zuen, Tomas Garbizurekin batera. Aita Arreguirekin eta beste batzuekin ikasi zuen musika.
- Soldadutza egiten zegoela (1925 inguruan), Anoetatik Albisturrera joaten zen, oinez eta soldadutzako arropak aldatu gabe, betarik ez zuelako, jaiero, harmoniuma jotzera, eta apaizarekin bapo bazkaldu ondoren itzultzen omen zen etxera.
- Irakasle-eskolako ikasketak egin zituen Iruñean; Plazaolako trenean joaten omen zen.
- Lehen izendapena, maisutzarako, Hernani izan zuen, 1927-28 ikasturtean, Zizurkilen egon zen beste urtebete, 1928-29 ikasturtean.
- 1929an, Abaltzisketara joan zen, Udaleko idazkari- eta organista-lanak egitera. Gaintzara ere joaten omen zen, batzuetan, organoa edo harmoniuma jotzera.
- 1939an, Amezketara joan zen, gerra amaitu eta berehala. Han Udaleko idazkari izan zen, orduan organista Juan Mari Imaz baitzegoen, baina oso lagunak omen ziren.
- 1942ko S. Luzia egunean, Segurara joan zen, Udaleko idazkari gisa. Han ere bazegoen organista, Julian Zunzunegui, baina Julian egon zen bitartean han ez zuen inork ere organoa ukitzen. Garai hartan meza kantatua ematen zen eguneroko Seguran, eta organistak, Joxe Marik eta Felix Alkorta aguazilak (meñoak) kantatzen zuten. Mutiloako idazkari ere izan zen. Geroago, Lazkaoko idazkari plaza eskatu zuen (emazteak konbentzitura) eta eman ere eman zioten. Olaberrian ere ibili zen lanean eta Lazkaon jubilatzen.

- Orendaingo organista ere izan zen.
- Nahiz eta Lazkaoko organista “ofiziala” ez izan, urte askotako hileta gehienetan berak egin zuen lan hori, Donostiatik joanda.
- Iñaki semeak (1935/01/28) ere musika ikasi zuen: lehenengo, Juan Mari Imazekin Amezketan eta, gero, Saturrarango eta Gasteizko seminarioan. Lazkaoko fraideetan aritu zen organoa ikasten, baina horretarako klaustrotik pasatu behar zuenez, galarazi egin zioten. Iñakiren alaba ere musika-ikasketak egindakoa da, solfeoa eta pianoa.

Jose Fermin Garmendia Arruabarrena

- Orendainen jaio zen 1918/11/17an.
- Orendainen hil zen 1959/05/21ean.
- Kalea etxekoa.
- Gurasoak: Jose Miguel Garmendia (Orendaingoa) eta Juana Arruabarrena (Zaldibiakoa).
- Pedro Jose Iguainekin ikasi omen zuen musika, gerra aurretik, eta Orendaingo organista izan zen.
- Eskuetako soinua ere jotzen omen zuen bere tabernan eta Elizaldeko garaje batean ere bai, igandero, eta inguruko herrietatik etortzen omen ziren disfrutatzerak.

Pedro Garmendia Olano

- Jose Antonio eta Josefa Mariaren semea (9 senide).
- Orendainen jaio zen 1922/12/09an.
- Herriko eskolan hasi zen oinarritzko ikasketak egiten.
- 12 edo 13 urterekin Saturrarango Seminaria joan zen. Gerra garaia zen.
- Orendainen hasi zen musika ikasten D. Jose Elorzarekin.
- Saturraranen 2 urte egin ondoren, Bergarako “Seminario de Menores”era joan zen (3. eta 4. ikasturteak egitera). 5. ikasturtea Gasteizen egin zuen, eta apaiz egin ere bai.
- Musika ikasketak:
 - Orendainen D. Joserekin hasi zen.
 - Pianoa ikasten bere kabuz hasi zen filosofian zegoela, baina kontserbatorioko irakasleak etortzen ziren; berak Txabarri izan zuen irakasle.
 - Organoa ere Gasteizen ikasi zuen, Julio Valdés irakaslearekin. Harmonia ere irakasle horrekin ikasi zuen.
- Apaiz eginda, lehen lanpostua Arabako Aperregi eta Lukianon izan zuen.
- Usurbilen egon zen “apaiz lagunkide-organista” moduan 6 urte.
- Venezuelara joan zen ondoren, eta 14 urte egon zen han. Han ez zuen organista lanik egin.
- Handik itzulita, urtebete egin zuen etxean, atsedena hartzen.
- S. Bizenteko “apaiz lagunkide-organista” izendatu zuten.
- Orendaina ere joaten zen harmoniuma jotzera.

Aloña Zuriarrain Eizagirre

- Juan M^a Zuriarrain eta M^a Teresa Eizagirreren alaba.
- Orendainen jaio zen 1980/3/20an.
- Alegiako eta Tolosako (Orixen) ikastetxeetan egin zituen ikasketak.
- Musika ikasketak Tolosako Musika Eskolan egin zituen; pianoa ikasi zuen Jexux Mari Esnaolarekin.
- Goi Mailako zikloa, Administrazioa eta Finantzak ikasi zuen.
- Lanbidez, baserritarra.
- Orendaingo organista da. Orendaingo elizan eta San Sebastian ermitan jotzen du.